

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Give me a little.
Little Little Much.
Autoekoizpena.
Iraupena: 25'07".
5 euro.

Distortsioan ondutako menu berezia

ARRASATEKO talde martziano hau Mallorcan jaio zen aspaldi, eta luzaroan martxa ezin hartuta dago taldekideetako bat Kanariar irletan bizi delako; irla arteko esperientzia. Orain bueltan dator hirukotea eta "Pixka bat es mucho" kanpainaren izenaren plagioagatik Jaur-laritzaren kontra borrokatzeko asmo biziarekin gainera. 90eko hamarkadako usaina, sonoritatea eta koipea dauzka etxean eginda dagoen disko honek: rocka, stonerra, metal tantak eta post-

hardcorea, hori guztia noise eta grungeak berezko duten zikintasun eta distortsioan ondo irinduta. Aukeratutako hizkuntzak irletako sasi-ingelesa eta euskara, biak batzen ditu, umorea eta surrealismoa lotzen dituzten istorioetan. Musika benetan maite eta bizi duen talde zikin eta dibertigarri gutxienetakoa. Jet lag-aren edo itsaso txarraren errua?

www.myspace.com/littlelittlemuch

Little Little Much

«90eko hamarkadako musika entzuten dugu; gaur egun ez dago halako talderik»

Zer gertatu da taldea hainbeste denbora isilik egoteko?

Distantzia da errudun nagusia. Karlos Kanariar uharteetan bizi da eta pazientzia handia behar da taldeak aurrera egiteko. Eskerrak on-line taldea garelara: Karlosek handik gitarra erritmoak bidaltzen dizkigu eta beste biok lokalean kantei forma ematen diogu; eta bera gurera etortzen denean kantak borobildu egiten ditugu. Asmoa daukagu orain laster kontzertu batzuk egiteko.

"Zuk zeuk egizu!" praktika muturre-raino eramanez duzue...

Bai, gaur egun aukera handiagoak daude zuk zeuk egiteko, eta langabezia bazauda, hobe duzu irudimenari eragitea. Gainera, disko arrunt bat atereaz gero, ez ginateke gustura geldituko; zerbait behar zuen. Diskoa lokalean grabatu genuen, kopiak guk egiten ditugu



eta zorroak eskuz eginda daude, artisau-lana da. Horrez gain, diskoa doan deskargatzeko jarri dugu gure myspacean.

Zuek zuentzat egiten duzue musika. Inporta zaizue jendeak gustuko izatea?

Bai, guk musika guretzat egiten dugu, ondo pasatzeko, eta hori aspaldi lortu genuen. Hori ez balego, ez genuke jarraituko. Hala ere, egia da jendeari zabaltzea atsegin dugula,

horregatik jarri dugu deskargatzeko moduan.

Nire ustetan zuen musika 90eko hamarkadan erabat sustraituta dago. Zer du hamarkada horrek?

Egia da. Gu orduan hasi ginen musikaz gozatzen eta jotzen, eta horrek arrasto handia utzi du gugan. Egia esanda, gaur egun ez dago halako talderik. Esaterako, Dut gure talde kuttunenetakoa da,

hain justu, sasoi hartakoa.

Bestalde, inor gutxik errebindikatzen dituen Tad eta Mudhoney sasi-grunge taldeak ere gogora ekarri dizkizue...

Ez ditugu talde horiek entzun, baina egia da konposatzerakoan dugun helburu bakarrenetarikoa bat ahalik eta zikinaren jotzea dela. Arrazoi ekonomikoaz gain, horregatik grabatu genuen gure lokalean, halako sonoritatea lortu ahal izateko. ■